

2. Kasuistika

INTZIDENTZIA/PREBALENTZIA

EGMari buruzko munduko datuak benetan ikaratzeko modukoak dira: 130 milioitik 140 milioi emakumera bitartek jasan dute genitalen mutilazioa, 3 milioi neska egoten dira urtero mutilatzeko arriskuan, 8.000 neska mutilatzen dituzte egunero, eta 29 herrialdek osatzen dute EGMa egiten dutenen gehiengoa, baina jardunbide hori unibertsala da gaur egun¹⁷.

Dena den, komeni da gogoratzea zifra horietan EGMaren mota eta hedadura guztiak sartzen direla, eta I. mota dela gehien egiten dena. Gidaliburu honetan esan dugunez, EGMaren ondorioak asko aldatzen dira mota batetik bestera eta, zehazki, I. motaren barruan sartzen dira prepuzioaren eszisioak baina klitoriari eragin gabe. Ez dakigu ziur zenbat diren, baina estatistiketan eta prebalentziaren eta intzidentziaren estimazioetan azken horiek ere sartzen direla izan behar dugu kontuan. Hastings Center-en 2012ko txosten baten arabera, “...GMEa desagerrarazteko grina dela-eta, mutilazioaren kontrako erakundeek Afrikako emakumeen genitalen mutilazioari buruz esaten dituzten gauzak ez dira zehatzak izaten, edo orokorregiak izaten dira, edo ez dira kasu gehienetan aplikatzeko modukoak izaten”¹⁸.

Wassu Fundazioak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearentzat txosten bat egin zuen 2014ko ekainaren 30ean: *Diagnostikoa. Emakumeen Genitalen Mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan*; txosten horretan jasotzen denez, migrazioen ondorioz EGMa ez da egiten soilik tradizionalki egin izan den herrialdeetan, baizik migratzen dutenen “kultura-ondare” moduan bidaiatzen du; hortaz, egun tokikoa globala dela dioen kontsignari jarraiki, EGMa diasporan dagoela esan dezakegu.

EGMa tradizionalki egiten duten herrialdeetan prebalentzia inkesta espezifikoek bitartez neurtzen da: Demographic and Health Surveys (DHS) eta Multiple Indicator Cluster Survey (MICS); aldiz, diaspora afrikarraren herrialdeetan hurbilketa demografikoa egin ohi da – erroldako datuak, esaterako–, osasun-erregistroak ez direlako beti baliodunak, EGMa ez baita beti erregistratzen¹⁹, jardunbide horren arretarako eta prebentziorako prestakuntzarik ez izatearen ondorioz. Horregatik, Espainiako Estatuan informazio-iturri pribilegiatu batera jotzen da: Espainiako Biztanleriaren Errolda Jarraitua; etorkinak aztertzeke estatistika-iturri egokia da, errolda horretan erregistratzeko aukera izaten baitute egoera juridiko-administratiboa edozein izanik ere. Horretaz gain, bizileku-baimen iraunkorrik ez duten

¹⁷ Mora, Luis, UNFPA-Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, Bilbon emandako hitzaldia, Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza, 2015eko azaroaren 16a.

¹⁸ Hastings Center Reprt. Seven Things to Know about Female Genital Surgeries in Africa.

¹⁹ EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY (EIGE) (2013) Female genital mutilation in the European Union and Croatia, Luxembourg, Publications Office of the European Union.

Erkidegotik kanpoko atzerritarrek bi urtean behin berritu behar dutenez erroldako erregistroa, biztanleriaren mugimendu mota horren berri eguneratua izateko aukera dago.

EGMaren DATU DEMOGRAFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2012ko urtarrilaren 1eko Espainiako Biztanleriaren Errolda Jarraituan bildutako datuak aztertu ziren 2012ko Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Mapan; horren arabera²⁰, EGMa egiten duten herrialdeetatik etorri eta Espainiako Estatuan bizi ziren 224.000 pertsonen artetik 11.000 pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren. Aldi berean, nazionalitate horiek EAEn bizi ziren 140.000 atzerritarren % 6,9 osatzen zuten.

EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsitako etorkin gehien zituen zazpigarren autonomia-erkidegoa zen Euskadi, eta EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsitako 10.000 pertsona baino gehiago zeuden Katalunian, Madrilen, Andaluzian, Valentziako Erkidegoan, Aragoi, Kanariar Irletan, EAEn eta Balear Uharteetan.

2008tik 2012ra bitarte, EGMa egiten duten herrialdeetako nazionalitatea zuten emakumeen populazioa asko handitu zen: EAEn eta Gaztela-Mantxan bikoiztu egin zen. 15 urtetik beherako neskei dagokionez, EAEn hirukoiztu egin zen populazioa, Kantabria eta Gaztela-Mantxaren maila berean, eta Asturiasko Printzerriak soilik gainditu zituen.


2012an, jatorri horietako 3.000 emakume baino gehiago bizi ziren EAEn, eta EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsi eta Espainiako Estatuan bizi ziren 57.000 emakumeen % 5,5 osatzen zuten. Emakumeen populazioak hazkunde erlatibo bizia izan zuen. 2008-2012 aldian, 1.800 emakume gehiago ziren, hau da, hazkundea % 142,1 izan zen; aldiz, Estatu osoan % 40ko hazkundea izan zen aldi berean. 15 urtetik beherako 800 neska baino gehiago zeuden, eta 2008. urtearekin alderatuta % 198,5eko hazkundea izan zen, 500 neskatik gora iritsi baitziren; Espainiako Estatuan hazkunde-erritmoa % 61,4 izanik, EAEkoa nabarmen handiagoa izan zen.

Nazionalitate horietako biztanleriaren guztizkoari dagokionez, Senegal zegoen lehen postuan (3.000 pertsona baino gehiago), eta bigarrenean Nigeria (2.000tik gora). Gutxi gorabehera 1.000 pertsona Mauritania, Kamerun, Ghana eta Malikoak ziren. Alabaina, nazionalitate horietatik datorren biztanleriari dagokionez, alde garrantzitsuak daude sexuaren arabera banaketan; izan ere, emakumeei buruz ari bagara, gehiengoa nigeriarra da, Senegal bigarren postuan utzita, Espainiako joerari jarraiki. Atzetik datoz Mauritania, Kamerun eta Ghana. EAEren berezitasuna da Mauritania, Kamerun eta Ginea-Bissauko emakumeen populazioak gehiegizko ordezkartza duela erlatiboki. Gehiegizko ordezkartza erlatiboa zera da, autonomia-erkidego batean bizi diren jatorri jakin bateko emakumeen proportzioa jatorri horretako populazioaren guztizkoari dagokionez handiagoa denean komunitate horrek Espainiako Estatuan duen guztizko biztanleriaren (EGMa) garrantzia baino.

²⁰ (Kaplan y López, 2013).

Jatorri nazionalari erreparatuta, 2008tik 2012ra Nigeriatik etorritako emakumeen kopurua 400dik 1.061era handitu zen; Senegalen kasuan, 175 emakumetik 510 emakumera; Mauritaniaren kasuan, 150 emakumetik 353 emakumera; Kamerunen kasuan, 125 emakumetik 311 emakumera; Ghanaren kasuan, 60 emakumetik 180 emakumera; Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, 75 emakumetik 149 emakumera; Guinea Bissauen kasuan, 100 emakumetik 147 emakumera; eta Maliren kasuan, 40tik 143ra. Gainerako nazionalitateen kasuan, 100 emakume baino gutxiago zituzten EAEko udalerrietan erroldatuta.

EGMa egiten duten herrialdeetatik datozen emakumeen guztizkoari dagokionez, EAEn 2012an dauden emakumeen ehunekoa nazionalitatearen arabera



Iturria: Wassu Fundazioak egin du UNICEF, 2013 eta Kaplan eta López, 2013 lanetan oinarrituta.

15 urtetik beherako nesken populazioak oro har emakumeen joerari jarraitzen zion, nazionalitatearen araberrako ordezkariari dagokionez. 2008-2012 aldian, neska nigeriarrak laukoiztu egin ziren, guztira 268 izanik; senegaldarrak hirukoiztu (142) eta Mauritaniako neskatilak bikoiztu egin ziren (95).

Demografiaren bilakaerari erreparatu eta aurreko paragrafoetan aipatu ditugun 2012ko datuak EInek emandako 2014ko urtarilaren 1eko Biztanleriaren Errolda Jarraituaren Estatistikaren datuekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu EGMa egiten duten herrialdeetatik datorren populazioa etengabe handitzen ari dela EAEn. 2012an 3.171 emakume ziren guztira, eta 2014an, aldiz, 3.680.

1 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeak EAEn, 2012- 2014

NAZIONALITATEA	2014KO DATUAK	2012KO DATUAK	2014-2012 ALDEA
Nigeria	1.412	1.061	351
Senegal	614	510	104
Mauritania	351	353	-2
Kamerun	314	311	3
Ghana	203	180	23
Mali	157	143	14
Ginea Bissau	149	147	2
Kongoko Errep. Dem.	140	149	-9
Ginea Conakry	109	96	13
Boli Kosta	61	52	9
Burkina Faso	38	38	0
Gambia	28	16	12
Kenya	46	48	-2
Egipto	19	18	1
Etiopia	17	17	0
Liberia	6	3	3
Benin	8	9	-1
Togo	3	2	1
Sierra Leona	5	5	0
Niger	n/d	3	-
Sudan	n/d	3	-
Tanzania	n/d	1	-
Uganda	n/d	3	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	1	-
Yemen	n/d	2	-
Guztizko Orokorra	3.680	3.171	+536/-14

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EInen datuen arabera 2014ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EInen “Afrikako gainerakoa”/”Asiako gainerakoa” kategorian sartuta daudelako.

0-14 urteko nesken populazioaren bilakaerari soilik erreparatzen badiogu, 2012an 818 neska izatetik 2014an 1.018 neska izatera igaro da. Horretaz gain, adin-tarte horretan eutsi egin zaio nesken ordezkartza handiena duten 6 nazionalitateen ordenari: Nigeria, Senegal, Mauritania, Kamerun, Ghana eta Mali, 2. taulan ikus daitekeenez.

2 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako 0-14 urtek neskak EAEn, 2012- 2014

NACIONALITATEA	2014KO DATUAK	2012KO DATUAK	2014-2012 ALDEA
Nigeria	439	268	171
Senegal	166	142	24
Mauritania	99	95	4
Kamerun	86	77	9
Ghana	65	55	10
Mali	59	45	14
Ginea Bissau	17	19	-2
Kongoko Errep. Dem.	43	44	-1
Ginea Conakry	32	22	10
Boli Kosta	19	14	5
Burkina Faso	11	12	-1
Gambia	11	5	6
Kenya	3	2	1
Egipto	5	5	0
Etiopia	4	4	0
Liberia	0	0	0
Benin	2	3	-1
Togo	0	2	-2
Sierra Leona	2	2	0
Niger	n/d	1	-
Sudan	n/d	1	-
Tanzania	n/d	0	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	0	-
Guztizko Orokorra	1.018	818	+254/-7

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EINen datuen arabera 2014ko urtarilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EINen “Afrikako gainerakoa”/“Asiako gainerakoa” kategorian sartuta daudelako.

Lurraldearen arabera bilakaerari dagokionez, 2014an Bizkaian biltzen ziren EGMa egiten duten herrialdeetako emakumeen % 58 (1.800 bat emakume), Araban % 31 (ia 1.000 emakume) eta gainerako % 11 Gipuzkoan. 15 urtetik beherako neskak ere antzera banatzen ziren.

Udalerriei dagokienez, EAEn erroldatutako emakumeen % 55, gutxi gorabehera, Gasteizen eta Bilbon bizi ziren. Bi hiri horietan nazionalitate guztietako biztanleak zeuden, baina bi kasuetan, Nigeriako emakumeen kopurua Senegalgoen hirukoitza zen. Gasteizen Mauritaniako biztanle asko metatzen ziren. Bilbon, Ginea-Bissau eta Kongoko Errepublika Demokratikoa ziren bigarren eta hirugarren jatorriak, baina bi nazionalitate horiek ez zuten ia ordezkariarik lurraldearen gainerakoan. Durangon eta Barakaldon ehundik gora

emakume zeuden, jatorriak askotarikoak izanik. 50 emakume baino gehiagoko gainerako udalerriak Sestao, Irun, Donostia, Basauri eta Markina-Xemein ziren. Sestaon Nigeriako emakumeak ziren nagusi; Irunen eta Basaurin Kamerungoak; Donostian Senegalgoak; eta Markina-Xemeinen, EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakume gehientsuenak Senegalgoak dira.

2012tik 2014ra bitarteko bilakaerari erreparatuta, egiaztatuko dugu populazioaren lurralde-banaketari eutsi egin zaiola

3 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeen lurralde-banaketa, bizi diren probintziaren arabera, 2014

NACIONALITATEA	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
Nigeria	588	147	677	1412
Senegal	105	172	337	614
Mauritania	146	95	110	351
Kamerun	82	56	176	314
Ghana	67	27	109	203
Mali	52	13	92	157
Ginea Bissau	5	2	142	149
Kongoko Errep. Dem.	4	0	39	43
Ginea Conakry	42	12	55	109
Boli Kosta	31	10	20	61
Burkina Faso	28	7	3	38
Gambia	6	1	21	28
Kenya	30	8	8	46
Egipto	7	8	4	19
Etiopia	0	6	11	17
Liberia	1	4	1	6
Benin	2	0	6	8
Togo	1	1	1	3
Sierra Leona	0	1	4	5
Niger	n/d	n/d	n/d	-
Sudan	n/d	n/d	n/d	-
Tanzania	n/d	n/d	n/d	-
Uganda	n/d	n/d	n/d	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	n/d	n/d	-
Yemen	n/d	n/d	n/d	-
Guztizko Orokorra	1.197	570	1.816	3.583

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EINen datuen arabera 2014ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EINen “Afrikako gainerakoa”/”Asiako gainerakoa” kategorian sartuta daudelako.

Emakume horiek EGMa pairatzeko duten arriskua baloratzeko garaian, herrialde bakoitzeko prebalentziari erreparatu behar zaio. Esan gabe doa arrisku-maila ez dela berdina Kamerungoa izan (prebalentzia % 1) ala Gineakoa izan (prebalentzia % 96). Horregatik, alde batetik, 3. taulan ageri diren lehenengo herrialdeak eta, bestetik, Afrikako EGMaren prebalentzia-mapa alderatzea interesgarria izango litzateke; hori eginda, prebalentziari buruzko honako datu hauek aterako zaizkigu: Nigeria % 27, Senegal % 26, Mauritania % 69, Kamerun % 1, Ghana % 4, Mali % 89, Ginea Bissau % 50.

Zenbait azterlanetan EGMaren arrisku-faktoreak hartu dituzten kontuan: etnia, amak EGM jasan duen, erlijioa eta amaren hezkuntza-maila. Kasu guztietan, eragin handiena izan duen faktorea etnia izan da, baina gainerako faktoreek ere eragin handiagoa edo txikiagoa dutela ikusi dugu, herrialdearen arabera (UNFPA, 2015).

Atal honen ondorio gisa zera esan dezakegu, EAEn kopuruak handitzen ari diren arren, munduko beste zenbait tokirekin alderatuz gero erlatiboki txikiak direla. Baina horrek ez du esan nahi fenomenoari arretarik eman behar ez diogunik, eta batik bat, beste nonbaitetik etorri eta gaur egun gure herrikide diren nesken kasuan, EGMaren prebentzioari. Arriskuan legokeen biztanle kopurua mugatua da eta geografikoki lokalizatuta dago. Horri esker, esku-hartzea hobe izan daiteke, alarmismorik eta estigmatizaziorik gabe, baina esku-hartze irmoa eta koordinatua izanik.